

ESKUBALOIA



Bogdan Wentaren lana erabakiorra izango da gaurko partiduan. ANDER GILLENIA

Elgorriagak garaipena behar du gaur Arcos Valladoliden kontra

P.A. / DONOSTIA

Elgorriaga Bidasoak partidu zaila jokatu du gaur arratsaldeko sei terdietan Artalekun, Arcos Valladolid taldearen kontra. Irundarrentzat partiduak garrantzi handia du, galduz gero Asobal koparako sailkapena lortzea jadanik ezinezkoa izango bait litzateke. Jantxo Villarreak leku zuzentzen duen taldeak emaitza onak lortu ditu azken partiduetan —Arrateren kontra 18-28 irabazi zuen azken ihardunaldian— eta gaur ere bi puntuak eskuratzeko faboritoak dira.

Irundarrek ez dute azken hiru denboraldietan galdu Valladoliden kontra eta Artalekun jokatu den neurketan ez dirudi Arcos taldea emaitza positiboa lortzeko gai izango denik. Denboraldi honetan behin neurtu dituzte indarrak bi talde hauek, Valladolideko Pisuerga ki-

roldegian eta orduan garaipena Elgorriagarentzat izan zen (25-27). Momentu hartan inork ez zion garrantzirik eman partidu horri, teoriarik behintzat Arcos Valladolid nahiko talde motela da eta. Hala ere, irundarrek gogor lan egin behar izan zuten partidua irabazteko.

Elgorriagaren arerioa izugarritzko moralarekin etorriko da Irurera, azken partiduan berdinketa lortu bait zuen Barcelona talde indartsuaren kontra. Neurketa Valladoliden jokatu zen, baina emaitza benetan adierazgarria da, Barcelonaren kontra puntua lortzea oso zaila da eta edozein kantzatan. Bogdan Wenta poloniarra izan da Elgorriagako protagonista nagusia azken partiduetan. Berari esker irundarrek ligako bolada onari eutsi diote eta Asobal kopa jokatzeko itxaropena dute oraindik. Hala ere, Wentak laguntza gehiago behar du partiduetan.

Guadalajara hondarrekoaren bisita finala bihurtu da Mepamsarentzat

DONOSTIA

Arratsaldeko sei terdietan Arrosadian hasiko den Guadalajara hondarrekoaren aurkako partidua finala bihurtu da Mepamsarentzat. Joan den igandean Alcala, Lvovek berdinketa eta urrezko puntua balio zuen penaltia huts egin zuen zortzi segundu falta zirenean. Partidu osoan zehar markagailuan aurretik izan arren 26-25 galdu zuten Mepamsakoek eta orain txapelketagatik borrokatuko dutenen multzoan sartzeko arazo larriak dituzte.

«Oraindik ezin dut sinestu partidu hura galdu egin genuela. Defentsan barkaezinak diren okerrak izan genituen. Jubenilei ere egiten ez dizkieten golak egin zizkiguten» esan zuen Ekisoainek. Dirudienez partiduen amaieran erretolika ederra entzun behar izan zuten jokalariek. «Bai, hala izan zen. Beraiek ere ez zekiten nola ihes egin zitzaizaien garaipena; nola edo hala, gauzak aldatu beharko dira Guadalajaraen aurkako partidurako», azpimarratu zuen Arrosadiako entrenatzaileak.

Orain dela hiru aste Mepamsa Alcoc bigarren faserako txartela eskutartean zuela bazirudien ere, gaur

Zupo Ekisoainek gizonen onenekin egoteko aukera kolokan ikusten dute. Azkenengo hiru partiduak galdu dituzte Iruñekoek. Beraz, bihurtu da Guadalajaraen aurkako partidua irabaztea ezinbestekoa da Ligako txapelketa jokatu dutenen multzoan egoteko. Zupo Ekisoain Mepamsako entrenatzaileak ez du ulertzen nola sartu diren egoera horretan. «Ulertezina da azkenengo partiduetan gertatu zaiguna. Gure akatsak —eta ez aurkakoen asmaketak— izan dira puntuak kendu digutenak eta hori kezkatzekoa da» adierazi zuen Ekisoainek.

Orain dela hogeitun egun Mepamsak sei partiduetan lau puntu baino ez zituen atera behar bigarren faserara pasatzeko, baina ez du bakar bat lortu. «Orain gelditzen zaizkigun hiru norgehiagoketatik lau puntu atera behar ditugu. Guadalajara taldea azkena da sailkapenean eta bi puntuak bereganatzeko ez dugu arazorik izan behar. Gero Atletico Madriden bisita izango dugu eta Helados Alacanten aurka kanpoan jokatu dugu. Errealistak izan nahi badugu Alacantetik ekarri beharko ditugu faltatzen zaizkigun bi puntuak» azpimarratu zuen Ekisoainek.

FUTBOLA

Realak Logroñon egindako partidu kaskarra ahaztu nahi du Bernabeun

Iñaki Alaba hasierako hamaikakoan izango da, Gajate lesionatuaren ordez

Realak eta Real Madridek ligako hamahirugarren ihardunaldiko partidurik interesgarriena jokatu dute gaur arratsaldeko zortzietan Santiago Bernabeu zelaian. Agustin Gajate Donostiara itzuli zen atzo, lesionatuta bait dago eta Alabak hartuko du bere tokia. Imanol ere jokatzeko moduan dago.

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA

Realak partidu garrantzitsua jokatu du gaur Real Madriden kontra. Donostiarrak izugarritzko kolpe morala jaso zuten Logroñesen kontrako partiduan, baina ligan azkenaldi honetako bolada onarekin segi nahi dute. Toshackek Realeko lehen plantilako jokalariek guztiak eraman zituen atzo Madriler, Agustin Gajate—lesionatuta—ezik. Galesak ez du taldean aldaketa handirik egingo, Logroñesen kontrako Kopako partiduan aldaketek ez bait zuten espero bezalako emaitzarik eman.

Iñaki Alaba hasieratik zelairatuko da, Agustin Gajateren ordez. Gajate Las Gaunaseko partiduan lesionatu zen eta Haroko kontzentrazioan izan den arren, azkenean etxera itzultzea erabaki du. Realeko defentsa beterranoak astebete egingo du geldirik eta gero erabakiko da egin beharreko tratamendua. Jokalariak berak adierazi duenez, lesio muskularra du —haragi etena— eta horrelakoetan hobe da gauzak lasai hartzea, behar bezala osatzeko. Imanol Alguacil ere Bernabeun izango da. Oriotarrak gairatitu ditu hankako arazoak eta jokatzeko prest dago. Ziurrenik hasierako hamaikakoan izango da, oraindik ezer ziurtatzerik ez badago ere.

Zelaia: Santiago Bernabeu. Ordua: 20.00		
REAL MADRID		REALA
ALINEAZIOAK		
BUYO	1	GONZALEZ
CHENDO	2	IMANOL
VILLAROYA	3	URIA
ROCHA	4	LARRAÑAGA
SANCHIS	5	GORRIZ
HIERRO	6	ALABA
BUTRAGUEÑO	7	OCEANO
MICHEL	8	IMAZ
LUIS ENRIQUE	9	KODRO
HAGI	10	C. XAVIER
MILLA	11	LUIS PEREZ
R. ANTIC	Ent.	J.B. TOSHACK

Epailea: Bello Blanco



Iñaki Alaba.

ZULORA ITZULTZEKO ARRISKUA Realeko entrenatzaileak ezer azaldu ez duen arren, hau izan daiteke galesak zelairatuko duen hamaikakoa: Gonzalez, Imanol, Uri,...

Datuak eta oroitzapenak

Egun gutxitan, bi partidutan, hain bi Real desberdin ikusi ondoren auskalo zein ikusi behar dugun gaur. Gaur zortziko Ligako hoberenetik asteazkenean denboraldiko txarrena ikustera joan ginen. Arrazoiak? Entrenatzaileak zioenez, berea da 'mea kulparik' handiena.

Belarrondoko ederra txuriurdi-entzatzat. Beste helburu baten inguruan ezin borrokatzeaz gainera diru mordoska bat jasotzeari utzi diote. Hala ere bitxia da mundu hau. Ezein kirolarik hanka sartzen duenean edo gaizki jokatzeko duenean irtenbide zaila izaten du. Normalean jokoan dagoena aulkira pasatzea erabakitzen du teknikoak eskarmentu antzera. Baina... eta teknikoak huts egiten duenean zer? Orduan ezer ez. Honek, sarritan, nahi adina hankasartze egin ditzake, nahi adina probatura eta entseiu. Dena zilegi da. Donostian gainera, gehiago. Erruak bizkar gairatitu eta kitto.

Hamar partidu jarraian galdu gabeko bolada eten arren, baikorrenak esango du Ligako azken zazpi partiduak oraindik ere porrotik gabe di-

✓ Iñaki Alabak hasieratik jokatu du Real Madriden kontra, Agustin Gajate lesionatuaren ordez.

Larrañaga, Gorritz, Alaba, Oceano, Imaz, Kodro, Carlos eta L. Perez. Oceano portugaldarra eta L. Perez hernaniarrak arazoak dituzte, baina biak jokatzeko moduan egongo dira.

Real Madriden kontrako partiduak garrantzi handia du Realarrentzat. Azken partiduetan lortutako emaitzen ondorioz Real sailkapenean erdialdean kokatu da. Baina kontu handiz ibili beharko dute donostiarrak, Bernabeun galtzea oso kaltegarria izango bait litzateke. Real negatiboa batez agertzen da sailkapenean —Sporting kontrako berdindu ondoren— eta Madriletik esku hutsik itzuliz gero postuak galduko litzuke.

tuztela, Sporting kontrako aho gusto ona hor dagoela. Pesimistenak aitzitik, etxetik kanpo oraindik ez dela garaipenik erdietsi, Real Madrid berebiziko markak haustear egoteaz gainera partidurik galdu gabeko talde bakarra dela, partiduerok golak egiten dituela, ate nahiz atzekalde sendoena azaldu duen taldea dela, Liga lortzeko hautagai bakarra dela... zer ez dute entzun?

Bada oroitzapenez bizitzeko gus-tatzen ez zaion jendea, egunerokotasuna bizi behar dela dioena. Bar-katuko didate horiek, baina niri izu-garrizko zirrara datorkit iazko bi partidu historiko burura datozkidanean: Real Madridek 2 Realak 3 eta Real Madridek 0 Osasunak 4. Oraindik ere Sadarren pankarta nagusi ba-tek, igande batean bai eta bestean ere bai, horixe gogoratzen digu. Imaji-natzen duzue hori gaur... Tumatxa, hi.



IÑAKI ELORTZA